

# Aretxagazeta

Internet: [www.saretxo.es/aretxagazeta](http://www.saretxo.es/aretxagazeta)  
e-mail: [aretxagazeta@saretxo.es](mailto:aretxagazeta@saretxo.es)

Aretxabaleta • 1999ko ekainak 23 • 170. zka.




Ibarrako bainuak,  
luxuzko sendabidea

Ituririk iturri: Nekane Aginagalde

Iritzia: Edurne Barrutia

Kirolak: Igor Arenaza



*Tarimak, parketak,  
parket flotatzalleak*



*Ardatza brikolaketa  
eskulanak egiteko  
materialeak*



## **AZKARATE AROSZTEGIA**


ARETXABAETA 943 77 01 24  
BERGARA 943 76 47 19

*Ateak, leihoak,  
horma armairuak, tarimak  
eta parketak*

**ARDATZA**  
*Brikolaketa*

Masterreka, 4 behea. Tf.: 943 76 18 93 • BERGARA

*Kalitateak mugarik ez.*



## **ARGI-PLASTIC**

leihoen fabrikazioa P.V.C, aluminio eta poliuretano  
Zigorrola, 1 8. Pabilioaia  
Tel.: 77 11 30  
ARRASATE




# Ezagutu eta praktikatu dituzu inoiz San Juanetako ohiturak?

## Felix Marrodan

(Langilea)

Ezagutu ezagutzen ditut San Juanetako ohiturak. Hala ere ezin izaten dut hauetan partehartu tabernaria naizelako eta barra atzean egon beharra izaten baitut. Ezagutzen ditudan ohiturak, sua eta makila altxatzea dira.



## Clemo Sillero

(Langabetua)

Ez dut ia ezer ezagutzen. Dakidan gauza bakarra sua egiten dela da. Horrez gain, gaur egun juerga egiten dela, eta hori praktikan jarri izan dut.



## Maria Jesus Bengoa

(Etxekoandrea)


Batzuk ezagutzen ditut, sua eta kintuen makila altxatzea, kasu. Hala ere, gu ume ginenean, oso ezberdina zen, zain egoten ginen sua pizteko eta gainontzeko baserrietakoa baino handiagoa bazen hobe. Abestu ere egiten genuen. Polita zen oso.



## Javier Igartua

(Jubilatua)

Urte askotan txopoa jasotakoa naiz, eta ondoren lagun koadrilak gazta jan eta Errotabarrira gerizak jatera joaten ginen. Hau sua egin ostean izaten zen, gau giroa lagunekin jarraitzeko. Oso oroitzapen onak ditut.



e s k u t i t z a



## Aretxagazetako oharra

Aretxagazetako aurreko alearen banaketa-rekin arazoak izan genituen. Hori dela eta, zuetako hainbatek ez du aldizkaria etxean jaso edota berandu heldu zaio. Honekin, barkamenak eskatu nahi dizkizuegu Aretxagazetako bazkide zareten guztioi.


## Aretxagazeta



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 86 21 Faxa: 943 77 18 54. **Erredakzio-kontseilua:** Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Monika Belastegi eta Iratxe Bengoa **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltea. **Banatzalea:** Jeanette Bragado. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aretxagazeta

## Lagun ugari bildu zen Kurtzebarriko jaietan

Egun handia ospatu zuten larunbatean Kurtzebarri eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek. Izan ere, Kurtzebarri Eguna ospatu zuten eta goizean goizetik hainbat ekitaldi izan zituzten: kirola, tirolina, musika eta beste hainbat.

Hala ere, ekitaldirik nagusia, eguerdian frontoian egindako bazkaria izan zen. Bazkari honetan 200 pertsona inguru bildu ziren eta ez zuten menu makala izan; bi gainera aukeran.

Bazkal ostean, txikientzako tailerrak egon ziren eta horrez gain, magoak, opariak, bolo txapelketa, dantzaldia Iñigo Madinabeitiarekin eta sari banaketa.



200 lagun inguru bildu ziren larunbateko bazkarian

## Orlando Piratas bigarren futbito txapelketan



Pasa den larunbatean Arrasaten jokatuako Zaldibarko Futbito Txapelketako finalean ezin izan zuen garai-pena lortu Aretxabaletako Orlando Piratas taldeak.

Emaitza 10 eta 1ekoa izan zen Arrasateko Aldibi taldearen aurka eta bertako jokalaria batek esan digunaren arabera, "emaitzak guztia esaten du", eta ezin izan zuten aurkarien aurka gauza handirik egin.

Hala ere, ondo pasatu zutela gaineratu du eta urde-azpiko bat eta trofeoa ekarri dituztela herrira.

Orlando Piratas taldeak garaile izan zen orain bi urte Zaldibarko lehiaketa honetan. Momentuz datorren urtera arte itxaron beharko dute.

BEIRALAN



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

KRISTALDEGIA

Herriko plaza, 8 behea  
Tfnoa: 943 79 81 78 ARETXABALETA

“ARINSA”

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa “EO-10”  
Tfnoa: 943 79 62 80  
ARETXABALETA

ORTOPEDIA  
**ORTO LAGUN**

Ortopedia teknikoko zerbitzua  
eskaintzen dizugu

Kontzezino 2 • ARRASATE •  
Tfnoa: 943 79 89 34

Gure tailerlean eginak:

- Korseak eta aparailu zuzentzaileak
- Hankentzako plantila bigunak: plano-balgoak, kabo eta mingarriak.
- Deskarga plantilak kirolarientzat.

Bazar sailean:

- Belaunetakoak, orkatila-babeslea, eskuturrekoak.
- Lanerako suekoak.
- Lumbago eta ziatika arazoentzako neoprenoak fajak, eta elastiko eroak.
- Gorpildun aulkia, aluminiozkoak, arinak, elektrikoak eta tolesgarriak.
- Ohe artikulatuak, gaixoak eramateko gruak, komundun aulkia, eskaren aurkako aire eta urezko koltsoiak.

# Gaztetxearen herri aurreko aurkezpena uztailean

Egun osoko ekitaldiak antolatu dira eta hauen artean Akulu taldeak joko du

Gaztetxearen herri aurreko aurkezpena egingo dute datorren uztailaren 3an bertako kideek. Aurkezpen honetarako, egun osoan zeharko hainbat ekitaldi antolatu dituzte Gaztetxeko kideek.

Ekitaldiak goizeko 11:00etan hasiko dira dianarekin. 12:00etan, poteoa egongo da trikitilari, hankapalo eta tam-tamekin. Poteoaren ostean, jende jokoak egongo dira eta hauek, gainontzeko ekitaldi guztiak bezala irekiak izango dira eta nahi duen edonork har dezake parte.

Honen guztiaren osterako, bazkaria antolatu dute Gaztetxeko lagunek, eta jadanik izena emateko epea irekita dago. Prezioa 1.000 pezetakoa da eta partehartu nahi duenak Gaztetxean eman dezake izena. Bazkaldu bitartean, postre lehiaketa egongo da. Norberak etxean egindako gozoak jango dira postrerako, eta gorapatuen denak eramango du saria.

Ondo bazkaldu ostean, arratsaldeko 19:00etan, poteoa egingo da eta jadanik gauera helduta, 22:30ean hain zuzen ere, Akulu taldeak kontzertua eskainiko du. Akuluren emanaldia amaitu eta gero, hainbat pintxa diskorekin dantza



saioa egongo da. Gazte Asanbladak Gaztetxearen egun hau antolatzeko helburua, bertako jarduerak herritarrei ezagutzera ematea da. Gaur egun, adin oso ezberdineko hamalau kuadrilek osatzen dute, eta orain hamabost egun hasi ziren antolatu eta bilerak egiten Gaztetxea aurrera atera nahian.

## Gaztetxeak gorantz

Azken urteotan Euskal Herri mailan gaztetxeek izan duten gainbehera-

ren ostean, badirudi berriz ere indarra hartzen hasi direla. Izan ere, hainbat herritan Gazte Asanblada berriak sortu dira eta gazteendako txoko izan nahi duten egoitza hauek indarra hartzen doaz.

Aretxabaletan ere, prozesua bera izan da, eta orain gutxi sortu den Gaztetxeko batzordea lanean ari da gazteentzako ikastaro eta hainbat ekintza antolatu nahian, uztailaren 3koa barne, Asier Antia presidente berriak duela.

**OPEL** 

**NORTE**

Zerbitzu Ofiziala

■ *Kotxe marka guztien konponketak*

■ *Zerbitzu guztiak*

Basabe Poligonoa, A-1-3 • Tfnoak: 943 79 62 65  
/79 20 86 Fax: 943 77 17 20 ARETXABALETA



**LASAGABASTER-en**

**AUKERARIK ONENA**

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

## Txikizioak izan dira hilerrian eta Errekabarren kalean

Errekako hesi babeslea apurtuta azaldu zen Errekabarren kalean orain hamarren bat egun. Iaz, eskoletan oporrak hartu eta handik gutxira gauza bera gertatu zen. Hautsitako hormigoizko hesi hauek mojen ostean kokatzen dira eta arriskutsua izan daiteke, inguru hauetan jende asko ibiltzen baita pasioan eta baita haurrak jolasean ere.

Honegatik guztiagatik, eta istripuak ekiditu nahian Udalak burnizko hesiak jarri zituen. Hala eta guztiz ere, hurrengo egunerako hauek ere bota egin zituzten.

Aurten Udalak hartuko dituen neurriak, bestelakoak izango asteleheneko Gobernu Batzordean erabaki-



Iazko txikizioak, aurten bezala opor garaian izan ziren.

takoaren arabera; neurri honen arabera, udaltzainak txikizioak egindako tokian izango dira inori ezer gerta ez dakion.

Horrez gain, pasa den asteburuan hilerrian hainbat lore eta kristal apurtu zituzten ezezagun batzuek.



## San Juan bezperan sua eta dantza

Gaur San Juan bezpera dela, eta urtero legez hainbat ekitaldi izango da herrian urteko gaurik laburrena ospatzeko asmoz. Egitarauari dagokionez, arratsaldetik izango da zer ikusi. 17:00etan, Jokuetako sari banaketa egingo du Marsel magoak Loramendi Euskara Elkarteko egoitzan. 19:00etan, musika saioa izango da herriko plazan, eta gaueko surako giroa gehiago berotzeko asmoz, Aretxabaletako txistulari eta buruhandiekin kalejira egingo da herriko kaleetan zehar. Horrez gain, San Juan gaueko giro misterioitsu eta erakargarrian murgildu aurretik, Loramendi dantza taldeak emanaldia eskainiko du 20:00etan.

Dagoeneko gauari helduz, 22:00etan Furunda taldeak alaituta dantzaldia izango da herriko plazan goizaldera arte. Bizen bitartean, gaueko 22:30ean, eta ohiturari jarraiki, San Juan sua piztuko da plazan bertan eta ondoren 1999ko Santa Ageda mutilek tantaia jasoko dute, hau ere plazan.



*Lubia*  
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA  
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE



Lurrindegia  
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

ARETXABALETA  
ITURGINTZA

Durana, 16-Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETA

## Alkate berria aukeratuko da uztailaren 3an

Uztailaren 3an Udaleko osoko bilkurak alkate berria aukeratuko du. Bilkura eguerdiko 12:30ean izango da eta bertan, alderdi bakoitzeko zerrendaburuek kandidatura aurkeztu ahal izango dute.

Prozedurari dagokionez, zinegotzi nagusienak eta gazteenak osatzen duten mahaiak, zinegotzi guztien kredentzialak hartu eta hautaketa hasiko da.

Zinegotzi gazteena, Euskal Herriarrok taldeko Josu Atxaga da, eta nagusiena Alderdi Popularreko Ma-

ria Rosario Arrue.

Zerrendaburuek, aukeratuak izateko, gutxienez zazpi boto lortu beharko dituzte; hau gertatu ezean, Euskal Herriarrok taldeko Anjel Bergaretxe izango da datozen lau urteotan alkate, ekainaren 13ko hauteskundeetan boto gehien lortu zituen zerrendaburua bera izan baitzen.

Bien bitartean, Juan Antonio Rodriguezek jarraituko du alkate zereginetan ekainaren 30era bitartean.

## Sakristauarekin oporretan

Aurten ere, Jose Luis Arratibelek, parrokiako sakristauak, abuztuko hilabeterako bidaia polit bat antolatu du. Guztira 47 pertsonak eman dute izena eta dagoeneko epea itxita dago. Irteera Abuztuaren leian izango da eta itzulera 13an. Aretxabaletatik urten eta lehenengo geldialdia Parisen egingo dute. Paris eta gero Holandara abiatuko dira eta hemendik Danimarkara. Honen ostean Suediara joango dira eta azkenik Alemaniara bueltatu aurretik.

Etxeberria Mantxuena ta Azkarretazabal Pilar omendu nahi ditugu gaur balira zeruko bi izar eberrak zazpi adar daduzka errealdian bi lizar ama zu izan zaitugu lagun aita bizitzarako ipar

Txominenak bai apartekoak kasta gogorra izaki gure amak be, grazi haundikin kanta ederrak dakizki adar jotzaile amorratua tratatzen gaitu eztiki zu izan zara tristealditan alaitasunaren toki



*Jesus Etxeberria eta Pilar Azkarretazabak urrezko ezteiak ospatuko dituzte datorren igandean. 1949. urteko ekainaren 27an ezkondu ziren; datorren igandean beteko dute, beraz, 50. urteurrena. Eguna ospatzeko, meza entzun eta Taberna Berrin bazkaria egingo dute senitartekoekin batera. Familiako guztiek zorionak opa dizkiete eta bertso hauek eskaini.*

Mantxuetarra serixua da nortasuna du zorrotza beti prest baina lagunketako xamurtu zaio bihotza hartuko ditu ehunen bat urte amak holaxe diotsa seme ta alaba bakoitzari milioiak itxi behar dotza.

Jexux Pilar ta gainontzekoak egun ederrena pasa bi hari muturka, denborarekin egina dute mataza gerokuek be beteko dute Atxabaletako plaza zorionikan beroenak da gora sendiko arraza!

Ekainaren 28tik uztailaren 16ra

Ikastaro trinkoak  
**Ingelesa eta alemana**

Berbetan Hizkuntzak  
Andra Mari Auzunea, 8 behea  
Aretxabaleta  
Tel./Fax.: 943 79 00 69

Klaseak goizez eta  
arratsaldez



berbetan  
HIZKUNTZAK


Bulego  
ordutegia:  
arratsaldeko  
3etatik 6etara

# ETXE MOBEL

MUEBLES



ALTZARIAK



## BI SOLAIRUKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 943 79 41 82

**ARRASATE**

# GRUPO **RK AUZ** **FAGOR**

**ALTZARIAK**



Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51

**ARETXABALETA**

**SUKALDE INTEGRALA**



Mitarte 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55

**ARETXABALETA**



# Nekane Aginagalde

## Santuak berritzeko esku ona

### - Zein irudi konpondu duzu?

- Lehenengo Ixurietako San Pedro elizako irudiak egin nituen eta gero Koruetako Santiago elizakoak.

Ixurietako elizaren kasuan, San Pedro, Kristo handi bat eta Ama Birjina txiki bat. Hauek ez ziren gehiegi izan, baina Koruetako elizakoak bai.

Azken honetan, bi Santiago, bata zaldiaren gainean eta bestea zaldirik gabe. Goian dagoen Kristo Gurutzekoa, Maria eta San Juan. Errosarioko Ama Birjina, San Joaquin bere alabatxoarekin, eta Santa Ana bere alabarekin.

### - Egoera oso kaskarrean zeuden?

- Ixurietakoak nahikoa ongi. Gehien bat hautsa zuten, elizaren konponketa egin zeneko hauts guztiak zituzten euren gainean. Honela, hau kendu, argizaria eman eta brilloa ondo atera baino ez nuen egin. Koruetako elizari dagokionez, pipiak guztiz jota zeuden irudiok, batez ere pintura joanda zuten alderdietan.

Honela, pipia kentzeko petroleotan bainu on bat eman nien, ondoren, pipi asko zutene irudiei baratzerako erabiltzen dudana produkto bat eman nien zuloz zulo eta azkenik plastiko batean bizpahiru egunez ondo itxita eduki.

Honen guztiaren ostean, zatiak falta bazituzten enpasteak egiten nizkien, beste edozein moduko mantxak bazituzten hauek kentzen nizkien bisturi baten bidez; izan ere, eliza pintatzearen ondorioz margo tantak zituzten hainbatek. Honelako lanak egin ditut irudiekin.

Hau guztia egin ondoren pintatu ere egin nituen, oleoz edota bestelako pinturrekin irudiaren arabera.

### - Beste inoiz eraberrituak izandako seinalerik bazuten?

- Bai. Astakeria handiak ikusi ditut. Batzuek izugarritzko barniz geruza dute gainean eta beste batzuek pintura mintz izugarria, brotxa sendoarekin emandako horietakoa.

San Joaquin eta Maria txikia, po-

koak. Zehazki ez dakit zein garaikoak diren. Aritu nintzen informazio bila baina ez nuen aurkitu.

### - Eta nolatan hartu zenuen zuek ardura hau?

- Esan egin zidaten ekarriko zizkidatela. Parrokian dagoen juntako batek esan zidan. Berak bazekien niri horrelako gauzak gustatzen zaizkidala, eta horrez gain erraza izaten da mojei horrelako lanak ematea.

### - Lehenago ere egin izan duzu horrelakorik?

- Bai. Ez hemen baina beste toki batzuetan bai, baina etxeko santu eta imaginekin.

### - Non ikasi dituzu horrelako gauzak?

- Ez dut bereziki inon ikasi. Ikusi egin dut eta horrela ikasi. Hemen izan aurretik beste komentu batean izan nintzen, eta bertan errestauradore batzuk lan nola egiten zuten ikusi nuen Horrez aparte ere,


altzariak konpontzea ere etxean ikasia dugu umetatik. Eta zaletasuna ere beti izan dut.

### - Horrez guztiaz gain, zer da zure egunerokoko bizitzan egiten duzuna?

- Goizean goiz jaiki eta bi orduz otoitz egin, izan ere, egunean zehar otoitzari bost ordu eskaintzen dizkiogu. Gero arratsaldean eskolan egoten naiz hiru urteko umeekin.

### - Zer da hiru urtero umeei irakatsi behar zaiena?

- Gauza asko. Batzuk aipatzearen, hizkuntzak asko lantzen ditugu, eskulanak eta elkarren arteko harremanak ere bai. Eta azken hau da lan handiena ematen duena, izan ere, umeak bakoitza bere jostailuekin jolastera ohitua baitago eta ez konpartizera.



**21 urte daramatza Nekane Aginagaldek Atxabaltako Santa Rita komentuan, aurretik Motrikoko beste komentu batean ere egon zen. 62 urte ditu eta 21ekin egin zuten moja. Beste gauza batzuren artean, esku fina du, eta Koruetako eta Ixurietako irudiak berritzi ditu.**

likromatuak direla ikusten da eta oso urre onarekin egindakoa gainera. Merezki du hauek biak errestauratzea. Nik txukundu baino ez ditut egin.

### - Balio handikoak dira?

- Ez dakit balio handikoak izango ote diren, baina bai oso antzina-

**“Koruetako elizan, bi irudi baliotsu daude, San Joaquin eta Maria txiki bat. Hauek errestauratzea komeni dela uste dut, oso zaharrak baitira”**



**“Hamabi urtez ikastolan ikasi eta gero, nola ulertu daiteke gazte batek “baleike gara” edo “ikusi dotsat” esatea? (...) Gure gurasoek behin ere ez dute esan horrelako astakeriarik, gu baino hobeto mintzatzen dira.”**

## Bai Euskarari!

Gaur egun sarritan entzuten dugu hainbat erakundek euskara bultzatzeko eta bere alde lan egiteko hitzarmen bat sinatu dutela. Horrelako ekintzak oso baikorrak dira eta txalotzekoak gainera. Euskara zaindu egin behar dugu; eta horrexegatik hain zuzen ere, ezin duguna egin da euskara erabiltzearen edozein modutan egitea. Orain arte badirudi gobernuaren kezka nagusia ahalik eta jende gehienak euskara erabil dezan lortzea izan dela, **nola** egiten den, hau da, hitzegiteko moduari jarmon larregi egin gabe.

Gure herrian betidanik euskara egin da, beste inguruko herrietan baino askoz ere gehiago. Gaurko gazteek denok dakite euskara, eta horietako gehienek erabiltzen dute. Baina nola egiten dute? Non ikasi dute euskara hori? Beraiek egiten duten euskara hori Aretxabaletakoa al da? Ez dut uste gure gurasoek hain gaizki egiten dutenik. Alde batetik, euskara batua dela eta, bertako hitzak, esamoldeak galtzen ari dira, eta urte batzuk barru, inork ez du jakingo “egukotxa” edo “barikua” zer den. Ez nago euskara batuaren kontra,

beharrezkoa dela uste dut, batez ere idazterako orduan, baina ikastolan bertako euskalkia bultzatu eta indartu egin behar dela uste dut. Beste horrenbeste gertatzen da telebistarekin. Atxabalta Telebista bada, zergatik ez “Atxabaltako” euskara erabili? Hori bai izango litzatekeela jatorrena eta egokiena.

Bestetik, hamabi urtez ikastolan ikasi eta gero, nola uler daiteke gazte batek “baleike gara” edo “ikusi dotsat” esatea? Esan ohi da Aretxabaletako euskara ez dela onena, baina gure gurasoek behin ere ez dute esan horrelako astakeriarik, gu baino hobeto mintzatzen dira, hiztegi jatorragoa erabiliz, eta hori ikasketak euskaraz egin gabe. Beraz, zeinen errua da? eta ez dago inor, irakasle edo guraso, hori horrela ez dela esateko?

Euskarari “bai” esan behar diogu, baina aldi berean zaindu dezagun hainbeste maite dugun euskara.

Edurne Barrutia

**ERREKABARREN  
MEREKATAL ZENTRUA**

- JUANTXO URDAITEGIA 943 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 943 79 59 85
- IRUDI ILEPAINDEGIA 943 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 943 79 31 59
- LEINTZ-ROSI 943 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 943 79 96 43



# Ibarrako bainuak, sendatzeko modu bitxia

Hasiera batean, geure bailara “Leintz Errege Bailara” deitzen zen, eta herri hauek osatzen zuten: Gatzaga, Eskoriatza, Atxabalta eta Arrasate. Gatzaga eta Arrasate banandu egin ziren eta 1630. urtean baita Atxabalta eta Eskoriatza ere. XIX. mendean bainuetxeen turismo-industriak gorantza egin zuen, iturri mineral-medizinalak zeudelako. Arrasateko Santa Agedako lehen bainuetxearen ondoren, epe motzean beste bainuetxe ospetsu batzuk sortu ziren bailaran, Ibarrako eta Otorako Lorategiko bainuetxeak besteak beste. Aipatu beharrekoak dira, halaber, Leinzko gatzaga ospetsuak, gatzaren industriarako oso garrantzitsuak eta emankorrek izan zirenak

Interesgarria izango da Ibarrako bainuetxearen irekiera, nolakoa izan zen, zein gaisotasun sendatzen ziren eta bere ondamendiaren berri jakitea.

*Erreportai hau Kurtzebarri eskolako 4. mailako neska-mutikoek egin dute. Hizkuntza-ingurugiroa asig-naturako eskoletan testu mota ezberdinak landu dituzte ikasturtean zehar eta erreportaia hauen artean. Honela, eskoletan ikasitakoa praktikan jarritz Ibarrako bainuetxearen inguruko erreportai hau prestatu dute. Gaia ikasleek beraiek aukeratutakoa da, bainuetxe honen inguruan entzundakoari buruz gehiago jakin nahian.*

Atxabaltako bainuetxeko eraikuntzaren eta irekieraren datu zehatzik ez dago, baina 1842 eta 1943. urte bitartean koka dezakegu.

Gainera, 1843ko maiatzaren 17ko El Corresponsal egunkariak Ibarra-ko bainuetxea zabaldu zela aipatzen du albiste batean. Beste alde batetik, urte horren amaieran Museo de las Familias aldizkariak Euskal Autonomi Erkidegoko bainuetxeei buruzko erreportai bat argitaratu zuen eta bertan, beste gauza batzuren artean, Atxabaltako bainuetxeen baikaintasunak aipatzen zituen.

Garai hartan Ibarra-ko bainuetxeak gorakada handia izan zuen baina ez bakarrik bertako urek zituzten ezaugarriengatik, baita hondartza eta Frantzia hurbil daudelako ere, eta kanpotarrak klima leunaren bila etortzen ziren.

Atxabaltako bainuetxeek izan zuten lehenengo jabea Ricardo Tejada jauna izan zen eta lehenengo mediku zuzendaria Rafael Breñosa doktorea izan zen.


## Bainuetxe eta luxuz beteriko ostatua

Atetik sartuta parke eder batera heltzen zen eta ezkerraldean bainulariak hartzen zituen ostatueta zegoen; eskuinaldean, bainuetxea bera eta erdigunean bi eraikinen komunikaziorako balio zuen galeria beiratzatua.


Burdinsarez itxitako lorategiak, bi aldeetatik mendi berde handiak zituen establezimenduaren kokapen atsegina areagotuz.

## Bainuetxea

Forma eliptikoa zuen eta egundokoa zen. Erdian areto handi bat zuen, beiradun kupula zuena. Areto horretatik zortzi kabinetara joan zitekeen eta kabinak bainurako 16 bakarkako gelek in komunikatzen ziren. Bakoitzean pieza bakarreko eta neurri handiko marmol leunduzko bainuontzia zegoen. Zinkezko hainbat bainontzi ere zeuden eta behar izanez gero, gaixoen geletara eramaten ziren.



*Atxabaltako bainuetxeek izan zuten lehenengo jabea Ricardo Tejada jauna izan zen eta lehenengo mediku zuzendaria Rafael Breñosa doktorea izan zen. Bere eraikuntzaren eta irekieraren datu zehatzik ez dago, baina 1842 eta 1943. urte bitartean koka dezakegu. 1987ko ekainaren 4an erauzi egin zen eta gaur egun ez da bere azar- narik geratzen.*



Beharrezkoa zen ur kopuru guztia iturburuak ematen zuen.

Beste kabinete batean, urak berotzean botatzen zituen gasak arnasten ziren, hau da, lurrin bainuak hartzen ziren.

## Ostatua

Ostatua bainuetxetik hogeita hamar metrora zegoen, tartean lorategi bat zuen eta San Martin izeneko erre-kasto baten ertzean aurkitzen zen. Oso dotorea eta polita zen.

Lau solairu zituen eta 88 gela gut-tira. Solairu nagusian aretoa zegoen; gauletan bertan aurkitzen ziren

bainulariak. Gela dotore bat zen eta pianoa eta jolas makinak zituen.

Beheko solairuan 1848an eraikitako egundoko jangela zegoen eta oso kolore apainak zituen. Leihoek lorategira ematen zuten. Jangelako atearen parean bilar aretoa eta irakurketarako gela zeuden.

Bainuetxetik 250 metrora beste ostatu txikiago bat zegoen, pobreen areto eritetxetzat erabiltzen zena, garaiko bainuetarako araudiak agintzen zuen legez.

Establezimenduko lorategi edo parkean senda iturri bat zegoen mineral gutxikoa. Gainera ur burdintsu-

ak zuten iturburu ugari zeuden. Urteak pasa ahala, berrikuntzak izan ziren.

Aparatu guztiak modernizatu zituzten, baita aretari leku gehiago eman ere. Lorategiak eta parkeak handitu eta pasaleku berriak sortu ziren.

1884. urtean bainuetxeak itxura bikaina eskaintzen zuen. Espainiar Estatuko ederrenetarikotzat hartzeaz gain, jende gehien izaten zuenetakoa ere bazen. 1888.ean, zilarrezko domina eskuratu zuen Bartzelonako Erakusketa Unibersalean.

**Atxabaltako ur miragarria**

Atxabaltako uren berri urrutira iritsi zen. Bainulari gehienak Madrilekoak ziren horregatik “Madrid chiquito” eta “Puerta sol” deitzen zioten.

Zaharrenek diotenez, uda garaian familia askok gelarik onenak madrildarrentzat hustu eta ganbarara joaten ziren bizitzera. Markelin Mendietak esan digunez, “etortzen zen jendea aberatsa eta elegantea zen, gehien

Azaleko gaixotasunak	%90
Katarro, bronkio eta lareinge afekzioak	%5
Hilekoaren desordenak	%2
Erreumaren afekzioak	%1
Beste batzuk	%2

bat Madrilekoak”. Atxabaltako Ibarako bainuetxera heltzen ziren gaixorik gehienek azaleko gaixotasunak zituzten:

ekzemak, herpeak, hasteri edo samak, inpetigoak, ektimak... Ur honek biriki eta katarroa tratatzeko ere balio zuen. Beste gaixotasunetako batzuk liseri aparatuari dagozkionak izaten ziren. Horregatik, “urdailaren iturria” deitzen zioten. Emakumezkoen kasuan, hilerokoaren desordena ere tratatzen ziren.

Ur haren propietaterik garrantzitsuena gas sulfhidrikoa zen. Ur doziak gaixotasunaren eta gaixoaren arabera ematen ziren. Batazbeste eguneko, hiru edalontzikada ur edan beharra zegoen, eta egunean zehar hainbat bainu hartu.

Atxabaltako urak, hala ere, hainbat kasutan kontraegokituta zeuden, bihotzeko gaitza izanez gero, tuberkulosiaren fase afektiboetan edota haurdunaldietan besteak beste.

**Gaur egun bainuetxearen aztarnarik ez**

1873tik 1876. urtera karlisten gerraren ondorioz bainuetxea itxita egon zen.

1877.ean, bainuetxean hamasei gela berri egokitu ziren.

1900. urtean bainuetxea egoera onean bazegoen ere, ospea galtzen hasi zen.

1925ean, irekita jarraitzen zuen, baina nahiko ondatuta zegoen. Honela, 1936. urtean behin betiko itxi zuten bainuetxea.

1936. urtetik aurrera etorkina zen familiakopuru txiki bat ostatuko gela batzuetan bizitzen jarri zen. Barnealdea abandonatuta zegoen.

1982an bainuetxea

hondamendi egoeran zegoen eta parke eder bat izan zenaren mutur batean txabola suntsitu bat zegoen, nolabait sufredun ur txorrota jasotzen zuela. Garai bateko parke lorategi eder hura, txatarra biltzen zuen bilakatu zen.

Bestalde, 1987ko ekainaren 4an erauzi egin zen eta gaur egun ez da bere aztamarik geratzen.

Eugenio Aldaiek eta German Gonzalezek esandakoaren arabarera, “zutik baina itxita eta porrote eintza euen azken urtietan”. Horrez gain, noiz bota zuten galdetu diegunean, “1987 urte inguruan” izan zela esan digute.



Goiko argazkian, Ibarako bainuetxeak erauzia izan baino zertxobait lehentxoago zuen itxura ikusi daiteke.

Behekoan, sufredun ura ematen duen iturria

**Kurtzebarri eskolako 4. mailako ikasleak**

# Mikel Galdosek Rolex trofeo ospetsua irabazi du

## 76 kolpez nagusitu zen 72 kolpeko zelaian

Ekainaren 6an Arabako Larrabea golf zelaian jokatu zen Rolex txapelketa ospetsua irabazi zuen Mikel Galdosek. Torneora 160 lagun aurkeztu ziren, gehienak nagusiak eta hauen aurrean 76 kolpez nagusitzea lortu zuen 15 urteko atxabaltarrak. Ondorioz, 300.000 ptan baloratutako Rolex erlojua jaso zuen. Jakin dugunez, Mikelentzat saria baino garrantzitsuagoa izan da, aitak baino handicap hobea lortzea.

### Profesionalen bidean

Txapelketa adin guztietakoei zuzenduta egon arren, Mikelek 15 urtekin nagusiagoi irabazteko gai dela erakutsi du. Aipatutako torneoan profesionalak bezala aritu



Hamabost urte besterik ez ditu Mikel Galdosek eta Rolex saria irabazi berri du

zen, 76 kolpe behar izan zituen zelaiko 18 zuloak osatzeko. Honela bete zituen zuloak: lehenengo zatian guztira 36 kolpe, honela banatuta: 4, 3, 4, 5, 3, 6, 4, 3, 4. Bigarren txandan, berriz, 5, 5, 5, 4, 5, 3, 3, 6, 5, 40 kolpe. Emaitza hau lortu ondoren, Mikelek Handicap 11 maila dauka.

Maila ona lortu du daukan adinerako baina bertan mantendu eta hau jaitsi nahi badu, gogor entrenatzen jarraitu beharko du. Badirudi hori ez dela arazoa Mikelentzat, gustora aritzen baita golfean. Horrez gain, txapelketak ere ugari jokatzen ditu, eta hauek oso lagungarriak dira esperientzia hartzeko.

## Arlutz futbito txapelketa hasteko gertu

### Hilaren 28an hasiko dira partidua

Urtero moduan aurtengo uztaierako ere Arlutz futbito txapelketa antolatu da. San Pedroekin batera hasiko da hilaren 28an eta amaitu, berriz, uztaieraren 23an.

Arauei dagokienez, taldeak 10 jokalariz osatuta egon beharko dute gehienez eta bakoitzak arduradun edo epaile bat izendatuko du. Jakin, bestalde, gehienez 30 talde onartuko direla. Izena lehenbailehen eman beharra dago, 8.000 pta ordainduz.

Partiduez gozatu nahi izanez gero, astegun arratsaldetan eta za-

patuetan egun guztian zehar izango da aukera.

### Saskibaloitxapelketarik ez

Aurten Arlutz saskibaloitxapelketarik ez da antolatu. Arduradunek azaldu digutenez, saskibaloiko kanastak apurtuta daude eta kantxa bera ere ez da dago egoera onean. Horregatik, "Udalari hauek konpondu eta berrizteko eskaera egin genion baina urtero moduan aurrekonturik ez dagoen erantzun digu. Beraz, ez da saskibaloitxapelketarik antolatu".

## Pelotan galdu

Joan den eguakotxean herri arteko pelotaxapelketa galdu egin zuten atxabaltarrek hernaniarren aurka. Final aurreko kanporaketa jokatu zuten eta 1-2ko emaitzaz nagusitu ziren kanpokoak. Kadeteetan, Igartua eta Nuñezek 0-18 galdu zuten Zabala eta Zuberoren aurka. Jubeniletan, Eraña-Alzola bikoteak 21-22 galdu zuen Erroirrenea-Santa Kurtzen aurka. Atxabaltako bikotea aurretik joan zen partiduan zehar eta 21-16ko emaitza ere lortu zuten. Baina azken momentuan egindako hutsegiteak direla-eta, ezin izan zuten irabazi. Azkenik, Errasti anaiak erraz nagusitu ziren 22-2ko emaitzarekin.

Bueltako partidua datorren domekan izango da Hernanin.

**IBARRA**  
ESTANKOA

 Tabakoa eta ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 943 79 23 77

**BEGIBO**

**optika**

Loramendi, 10  
☎ 943 79 98 21

*Okindegia - Gozolegia*

**Aretxabaleta**

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19  
Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81


Aretxabaleta  
Bertako okina

# Igor Arenaza

## Eibar bigarren mailan mantetzea lortu dugu

Miraria gertatu zen domekan Eibarren eta Igor Arenazak deskantsu handia hartu du, Eibarrek bigarren mailan mantentzea lortu ondoren.

Ekainaren 30erarte dauka kontratua Eibarrekin eta oraindik ez daki datorren denboraldian bertan jarraituko duen ala ez. Zurrumurru batzuk entzun diren arren, berak jakinarazi digunez, oraindik ez dago ezer garbirik.



• Orain hilabete batzuk inork gutxik uste zuen Eibarrek bere burua altxako zuenik, baina bigarren mailan mantentzea lortu duzue...

Bai, egia da. Denboraldia oso txarto hasi genuen eta ondorioz, esperatza guztiak ia galtuta zeuden. Dena dela, taldearen lasaitasunak alde batetik eta agresibitateak bestetik, azken partiduetan emaitza onak lortzea ekarri du. Bigarren mailan mantentzea ez zegoen gure esku bakarrik, azken partidua guk irabazi egin dugu, eta bestetik, Herculesek ere gauza bera egin zuen Mallorcaren aurka. Beraz, horrek bigarren mailan mantentzea gaitu.

• Nola ospatuko duzue?

Hitzegin dugu horretaz, bai. Taldekide bat, Kiko, Galiziakoa da eta bere herritik Santiagorako bidea egitea komentatzen da. Beste batzuen ahotan, etxean astebetean ez direla agertu behar dabil. Jokalariok bazkari bat egingo dugu Elkano jatetxean, eta urteroko afaria ere izango dugu zuzendaritzarekin.

• Azkenengo partiduak onak

“Eibar taldearekin ekainaren 30 arte daukat kontratua. Datorren denboraldiari begira ez daukat ezer garbirik”

izan dira taldearentzat, eta zure lana garrantzitsua izan da bertan.

Golak garrantzitsuak dira, baina ez dut uste nire golengatik bakarrik lortu ditugunik emaitza onak. Azken finean talde osoaren lana izan da. Entrenadoreak berak ere egin ditu sistema aldaketa batzuk eta onuragarriak izan zaizkio taldeari.

• Bestalde, nola joan da aurtengo denboraldia?

Hasierako 17 partiduak jokatu nituen baina gero sorbaldako lesio

bat izan nuen. Lau hilabetez bajaz egon nintzen ondorioz. Kostatu egin zitzaidan berriz ere taldera moldatzea baina azken partiduetan oso gustora aritu naiz eta golak ere dextente sartu ditut.

• Lesionatu aurretik gol bakarra, eta ondoren sei, nola esplikatzen da hori?

Ez dakit. Agian dena galtuta ikusteak eta barruko amorru horrek gauzak ondo irtetea eragin du. Baina ez dauka esplikazio argirik, gauzak horrela izaten dira futboleko eta zorteak berak ere asko esan nahi du.

• Zer eman diozu Eibarri urte hauetan, eta zer berak zuri?

Pertsonalki saiatu naiz ahal dudan guztia ematen, nahiz eta batzuetan gauzak ez zaizkidan nahi bezala atera. Bestalde, Eibarrek bertan egin ditudan bost urteetan 2. mailan mantentzeko aukera eskaini dit, eta baita lagun on asko egiteko aukera ere. Guzti hori eskertu beharra daukat.

• Jaso duzu beste talde bateko deirik?

Eibar taldearekin ekainaren 30 arte daukat kontratua eta oraindik ez dakit datorren denboraldian zer egingo dudan. Aukeraren bat irtenez gero, baloratu egin beharko nuke. Logroñesera joango naizen zurrumurrua entzun da baina momentuz ez dago ezer.

• Eta orain ondo merezitako oporrak?

Bai, lasaitasun handia hartu dut azken partiduen ondoren. Uste dut opor egun batzuk ondo merezita ditugula guztiok eta oso onuragarriak izango zaizkigula.

# San Juan, San Juan biba San Juan

Gaur egun asko aldatu dira gauzak San Juan eguna eta bezpera ospatzeko orduan. Antzinako ohituretatik bakan batzuk baino ez dira geratzen eta gazteenek sua eta txopoaren jasotzea baino ez dituzte ezagutzen.

Geure nagusienek, hala ere, ez zituzten San Juan bezpera eta San Juan eguna bera gaur egunean bezala bizi.

Garai batean, egun handiak izaten ziren hauek, eta kanpoan bizi ziren senitar-tekoak ere herrira itzultzen ziren familiar-tean ospatzera.

Asatza auzoan adibidez, San Juanak ospatu izan dira eta honela gogoratzen dituzte Felix Eraña eta bere emazteak urteko gaurik labur eta egun luzeenaren ospakizunak, nahiz eta beraiek esan bezala :

San Juan bezperan kanpoan bizi ziren senitar-tekoak gonbidatu hartzen ziren etxean eta guztiok elkarrekin pizten suten San Juan sua. Etxe bakoitzean su bat edota bi eta



Badira 30 urte Asatzako auzokideek San Juanak antzina gisa ospatzen ez dituztela. Hala ere, memorian gordeta dute eta etxean gonbidatuak hartzen zituztela oroitzen dute

hiru ere izaten ziren. Suak, etxe inguruan bildutako zamararekin egiten zen. Agi denez, suaren helburua sorginak eta ispiritu txarrak uxatzea zen eta honako hau ere abesten zuten hainbat tokitan: *Sorginak eta sapuak erre, garixak eta artuak gorde.*

San Juan goizean, Meza Nagusia izaten zen eta bertara sendorra eramaten zen. Sorta hau, San Juan

lora, serbiletan lora eta kuku-fracaz osaturik zegoen eta etxean gordetzen zen urte osoan zehar horeixa zetorrenean uxatzeko.

Meza aurretik, Demetrio Uriarte danbolina jotzen aritzen zen etxerik etxe eta Tomas Guerrak otar batean etxeetan emandako jakiak gordetzen zituen. Meza ostean pieza batzuk jotzen zituzten eta arratsaldean dantzaldia izaten zen.

**PIENSO SUNZUE S.A.**  
**FELIX PAGALDAY**  
 Laborantza tresnak  
 Ongarriak- Haziak  
 Mitarte, 7 behea  
 ☎ 943 77 00 33/79 42 56

**REGIOBO**  
**optika**  
 Loramendi, 10  
 ☎ 943 79 98 21

**ARQUERO**  
**CONSTRULAN S.L.**  
 ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK  
 Tfnoa: 943 79 01 51  
 Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
*Lyonel Arquero*  
 Dekorazioa:  
*Soraya Arquero*

ARGAZKI  
*UrKiola*  
 Tfnoa: 943 79 39 20  
 ARETXABALETA

**OSKAR GARAJEA**  
 Basabe Poligonoa, A-2-4  
 Tfnoa: 943 79 98 74  
 ARETXABALETA

Izozkitekari-Gozotegia  
**IZOZKITEGI**  
 Otalora, 11  
 Tfnoa: 943 79 93 58  
 ARETXABALETA

**ANDRA MARI**  
 Aholkularitza  
 - Fiskala  
 - Kontablea  
 - Juridiko/laborala  
 Andra Mari Auzunea, 3  
 ☎ 943 79 29 26





## *Eskolara joaten gineneko garai hura*

**B**ai gaur egun, baita lehen ere, kurtso amaierak pozgarriak izaten dira ikasleentzat. Argazki hau, 1964. urtean ateratakoa da, eta Eskola Nazionaletan zebiltzan 10 urteko neskatxoek kurtso amaiera isladatzen du; gaur egun berrogeita bost urte inguru dituzte argazkiko neskatok.

Beheko lerroan, ezkerretik hasita: **Charo Gorostiaga, Belen Garro, Presentacion Espinar, Teresa Delgado, Maria Luisa Peñuela.**

Bigarren lerroan: **Isabel Fernandez, Fuensanta Romero, Emilia Romero (1966an hila), Karmentxu Esteban.**

Hirugarren lerroan: **Maria Teresa Urkia, Rosa Mari Atxaga, Marilu Errasti, Mari Carmen Martinez.**

Laugarren lerroan: **Guadalupe Vazquez, Aranzazu Rodriguez, Encarna Pablo.**

Azken lerroan: **Celia Fernandez, Pilar Carrasco, Maria Angeles Gaona (maistra), Charo Etxenausia, Gloria Perez.**

*Argazkia eta informazioa: Fuensanta Romero*

Frutan eta txarkuterian  
espezialitatea

**Angelines**  
AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

**Jauregi**  
Okindegia

Otalora, 10  
Tfnoa: 943 79 57 47  
Aretxabaleta

**Etxabe**  
*harategia*

Durana 4  
☎ 943 79 16 61

BITXITEGIA

**MIREN & ZURIÑE**  
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA  
Otalora kalea  
Eliza aurrealdean  
Tfnoa: 943 77 13 57



## LANA

◆ **Loramendi Euskara Elkarteak dinamizatzaile bat** behar du. Interesatuok deitu 943 77 09 70 telefonora edo eta bidali curriculum-a Aretxabaletako udaletxe zaharrera, Durana, 11 20.550 Aretxabaleta.

◆ **Emakume bat behar** da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok 943 79 04 45 telefono zenbakira deitu.

◆ **Zerbitzari** euskalduna behar da. Tfnoa: 945 44 50 86

◆ **Neska prest**, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 943 77 17 42.

◆ **Zerbitzaria** behar da. Tfnoa: 945 445086.

◆ **Neska prest** etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 943 771724.

◆ **Langaiko lan eskaintza**

**Ordenagailuak mantentzeko teknikaria.** Deba Garaia. Erref. 18372/4.

**Hotz eta klimatizazioko teknikaria.** Deba Behea. Erref. 20523/2.

**Sukaldaria.** Markina-Ondarroa. Erref. 19580/1.

**Operarioa.** Deba Behea. Erref. 19628/2.



**Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura. Dohainik da.**



## DENETIK

◆ LOGSE 2. mailako neska bati gaztelerazko klaseak emateko pertsona bat behar da. Tfnoa: 943 79 71 32.

◆ Ingeleseko eta euskarazko klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. 943 79 06 86.

◆ Laredon, hondartza ondoan, apartamentu bat alokatzen da uda osoan. Tfnoa: 843 795280.

◆ Gela bat hartu nahi dut alokairuan Aretxabaletan. Tfnoa: 670 05 47 63.

◆ Udan klase partikularrak ematen dira 2. ESSOrarte. 943 79 25 62 Arantzazugatik galdetu.

◆ Volkswagen Comby furgoneta salgai. Guztiz ekipatuta. Tfnoa: 943 714915, 21:00etatik aurrera.

◆ San Migel merenderoa alokatzen da Apotzagan. Tfnoa: 943 714996

◆ Datorren ikasturtean arratsaldez alemaneko klaseak emateko irakaslea behar da. Tfnoa: 943 79-0069, 15:00etatik 18:00etara.

◆ Giltza batzuk aurkitu dira Musika Eskolan. Central Hispanoko laberoa dute.

◆ Laredon pisu bat alokatzen da irailean. Tfnoa: 943 793147

◆ Laredon apartamentua alokatzen da, igogailuz. Uztaileko hamabostaldia 70.000 pta. Tfnoa: 943 76 44 34.

◆ Roller Aloha karabana salgai. Tfnoa: 943 770522, iluntzean.



## ETXEBIZITZA

◆ Lokal komertziala salgai edo alokagai dago Aretxabaletan, toki zentriko eta eguzkitsuan. Orain artean ileapaindegi eta edertze areto moduan funtzionatu du. Tfnoa: 943 71 12 70.

◆ Baserri zahar bat erosiko nuke berrizteko asmoz Deba Bailaran. Tfnoa: 649 67 19 14.

◆ Etxe bat erosi nahi genuke Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 86 21

◆ 57 m<sup>2</sup>ko garajea salgai Errekabarren kalean. Tfnoa: 943 79 74 73.

◆ Etxe bat erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 649 16 86 69.

◆ Etxea erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 943 796168.



- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15

☎ 943 79 34 28 • Faxa: 943 79 34 28

# CONSUM EROSKI

*Orain arrandegi eta okindegiaz, zatoz!*

Mitarte kalea z/g 943 79 92 11  
ARETXABALETA

## Udan sartu gara



*M. J. Artekas*

Astelehen honetan udan sartu gara. Bueno udan sartzea esate bat da, eguzkia oraindik ez dakit konturatu den eta. Ez naiz bero zalea baina gona motza janzteko desiatzen nago eta hanka zuri hauekin ezin. Momentuz frakekin jarraitu beharko dut.

Uda heldu eta hauteskundeak pasatu. Batek baino gehiagok sorpresa galanta hartu zuen astelehen goizean herriko udaletxerako emaitzak ikustean. Izan ere aldaketak etorri dira, hurrengo lau urtetan EHko alkatea izango baitugu, baita PP alderdiko zinegotzi bat ere. Orain ikusi egin behar herriari zein aldaketa ekarriko dizkion.

Udarekin batera jaiak ere barra-barra ugaritzen dira. Horrela bada eta ikasturte amaiera heldu dela eta **Kurtzebarri eskolak** pasa den astean hainbat ekintza antolatu zituen bertako ikasleentzat, baita marrazki eta keramika erakusketa bat ere. Ekintzaz

betetako asteari bukaera emateko, zapatuan bazkaria egin zuten. 200 pertsona inguru bildu ziren bertan, irakasle, ikasle eta gurasoen artean giro benetan polita sortuz.

Kurtzebarri eskolako **Jose Luis Martin**, berriz, Broad Peak 8.000 m.tik gorako mendia igotzeko asmoarekin joango da Himalaia aldera beste bost lagunekin batera. Zorte ona desio diogu hemendik.

Zortearrekin jarraituz, benetan zorte ona izan duena **Manolo Urtubi** izan da. 1.400 pta.ko primitiba egin eta 5.258.000 pta. lortu, hori bai mauka!

Aste honetan bada nora joanik **San Juan jaiak** ospatuko dira eta Euskal Herriko herri askotan. Eguaztenean, ordea, ni behintzat herrian geratuko naiz suaren inguruan salto batzuk egin, Furunda taldearekin dantzan egin eta datorren urteko santa ageda mutilek tantaia nola igoten duten ikusteko. Ia lehenengoan igotea lortzen duten aurtengoek ere.

Gogoratu San Pedro egunean, hilak 29, berriz, **Jon Molina** atxabaltarra apaiz ordenatua izango dela Donostiako katedralean. Bertara joan nahi duenarentzat autobusa antolatu da eta oraindik lekua dago bertan. Joaterik ez dutenentzat, berriz, uztailaren 4an bere lehenengo meza emango du herrian eta hemetxe izango dugu zorionak emateko.

Hamabost egun barru kontu eta kantu gehiago, jaien ostean zeresanik izango dut eta. Bitartean ondo pasa eta txintxo ibili, udaberriak bihotza baina udak burua nahasten du eta.

## Liburutegiko txokoa



**Biblioporrak**  
irakurketa gida

Jadanik boskarren urtez dugu "Biblioporrak" izenez Udara aldean banatzen dugun irakurketa gida. Aurtengoan itxura berriarekin dator eta Javier Erostarbe izan da diseinuaren egilea.

Gida hau Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Oñatiko Liburutegiekin elkarlanean egiten dugu eta bertan urte sasoi honetan irakurtzeko aproposak iruditu zaizkigun liburuak gomendatzen ditugu adin guztiak kontuan hartuz. Gida hau eskoletan banatuko zaie haurrei; dena den, norbaitek jaso ez badu Udal Liburutegian bertan edo egunkariak saltzen diren dendedetan ere hartu ahal izango du.

Bestalde, gogoratu Udal Liburutegia abuztu osoan itxita egongo dela; baina uztailaren 15etik aurrera atxera eramaten diren liburuak irailean bueltatu daitezke.

**Joseba Lopez de Armentia**

ekaina

23

egustena

**SAN JUAN BEZPERA**

Arratsaldeko 17:00etatik hasi eta gauera bitartean **musika eta dantzak** plazan. 22:00etan **dantzaldia Furunda taldearekin** eta 22:30ean **San Juan sua** eta **tantaiaren jasoera** plazan.



24

eguna

**BERTSO SAIOA**

**Unai Iturriaga** eta **Jon Maia** **bertsolariek** saioa eskainiko dute arratsaldeko 19:15ean Arrasateko Sebero Altube plazan.

**ANTZALDIA EGAN TALDEAREKIN**

Gaueko 23:30ean **dantzaldia** eskainiko du **Egan taldeak** Arrasateko plaza nagusian.

**DOINU MEXIKARRAK**

Gaueko 23:00etan **Los Perez de Nochistlan talde mexikarrak** emanladia eskainiko du Arrasateko Monterron jauregian.

**KONZENTRAZIOA HERRIKO PLAZAN**

**Euskal Presoak Euskal Herriratzeko konzentrazio deialdia** egin du Aretxabaletako Euskal Presoak Euskal Herriratzeko plataformak. Arratsaldeko 19:00etan plazan

25

eguakotxa

**KONTZERTUA**

Arrasateko Goikobalu abesbatzaren 10. urteurrena dela eta **Bilboko koral elkarteak Brahms-en requiem**-a abestuko du arratsaldeko 8etatik aurrera Amaia antzokian.

27

domeka

**AUTOKROSA ESKORIATZAN**

**III. Autokros San Pedro Jaiak** egingo da Ederlan lantegiaren pareko zelaina 15:30ean.

**GARBITU S. KOOP**  
**Garbiketa orokorrak**  
Errekararren 3- Behea  
Tfnoa: 943 79 01 28

**Maritxu Mertzeria**  
Araba Ibilbidea, 24  
Tfnoa: 943 79 23 53  
ARETXABALETA

**Mobiliario ARENAZA**  
**ALTZARIAK DISEINUA APAINKETA**  
Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**T X I L A R R A**  
**ELIKADURA BEREZIA**  
Durana, 35  
Tfnoa: 943 79 10 15  
Loramendi, 9  
Tfnoa: 943 79 44 28  
ARETXABALETA

**Aldi bi**  
**943 71 20 02**

*Bereziki: Harategia Urdaitegia Fruitategia*  
**IMANOL JANARI DENDA**  
Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

**ITURGINTZA**  
**J.J**  
*Jose Jabier Irure*  
**URA, GASA ETA KALEFAZIOA**  
Tfnoa: 943 79 07 34  
943 79 31 87



28  
astelehena

**NAGUSIEN DANBORRADA**  
Nagusien danborrada egingo da gaueko 22:30ean.

**ESKORIATZAN DANTZALDIA**

Egan dantzataldeak emanaldia eskainiko du 24:30ean plazan.

**Udan kirola nagusi**

Aretxabaletako kiroleak hainbat kirol ekintza antolatu ditu uztaile-rako. Horien artean tenisa, igeriketa, aerobic, golf, badminton, mantentze gimnasia eta 3. adinerako gimnasia daude. Jarduera hauek 16 urtetik gorakoei zuzenduta daude eta izena emateko kirolekian egin daiteke.

30  
asteazkena

**AKELARREREKIN DANTZALDIA**

Akelarre taldearekin dantzaldia egongo da 22:30ean herriko plazan.

uztaila

2

egukotxa

**EUSKAL JAIA**

Egun osoan zehar **Euskal Jaia** ospatuko da Eskoriatzan jaien egitarauaren barnean.

**Okila Taila Elkarte eta Pausoka**



Xabier Etxebarrieta elkarrizketatuko dute aste honetan telebistakoek. Xabierrek, Okila Taila Elkartek zer egiten duen, nola hasi ziren, aurrera begira dituzten proiektuak eta beste hainbat gauza kontatuko dizkigu.

Dakizuenez, Okila Taila Elkartek

ak egurra lantzen du eta artisau mota honi buruzko ikastaroak ematen ditu. Jadanik hianbat tokirako enkarguak jaso eta egin ditu eta honen guztiaren inguruko sekretuak jakin ahal izango ditugu telebistan.

Horrez gain, 30ean Pausoka erreportaia errepikatuko da ikusentzuleek horrela eskatuta 19:30ean.

	MARTIZENA	EGUAKOTXA
20:00	ALBISTEAK Atxabaltako albistek Gai orokorra Eguraldia	ALBISTEAK Atxabaltako albistek Gai orokorra Eguraldia
20:20	KIROLAK	AGENDA
20:30		ATXABALTA EZAGUTZEN

**Aretxabaleta**

- Almen 943 71 49 07
- Aretxagazeta 943 79 86 21
- Basotxo 943 77 09 81
- Euskaltegia 943 79 21 68
- Gizarte-Laguntzailea 943 79 10 00
- Hezibide Elkarte 934 79 31 32
- Industrialdea 943 79 62 80
- Institutua 943 79 79 00
- Kiroletxea 943 79 64 61
- Kultur-Etxea 943 79 01 05
- Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
- Kurtzebarri B.H.I. 943 79 57 40
- Liburutegia 943 79 10 00
- Loramendi E.E. 943 77 09 70
- Ludoteka 943 79 05 81
- Murrukixo M.E. 943 79 93 74
- Musika Eskola 943 79 36 50
- Ortzadar 943 79 01 84
- Osasun zentroa 943 79 74 58
- Otalora 943 71 24 06
- Parrokia (Bulegoa) 943 79 18 42
- Pausoka Haur-Esk. 943 77 03 77
- Postetxea 943 79 28 31
- Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
- Saretxo 943 71 26 56
- Taxi Geltokia 943 79 22 33
- Udal Bulegoak 943 79 10 00
- Udaltzaingoa 943 79 10 52
- Urats Gain 943 79 99 11

**Udaltzaingoa**

- Arrasate 943 79 14 39
- Bergara 943 77 91 06
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Oñati 943 78 04 11

**Larrialdia**

- SOS Deiak 112
- Eskualde-Ospitalea (Arrasate) 943 03 53 00
- Ertzaintza 943 79 71 99
- Gurutze-Gorria 943 76 55 76
- Larrialdia 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

**Garraioak**

- Pesa 902 10 12 10
- Renfe (Gasteiz) 945 23 02 02
- Renfe (Zumarraga) 943 72 15 15

ARANTXA IZURA



“Koloretako etxetresna elektrikoak daude modan”

Izatez Getariko da Arantxa Izura, baina 13 urte zituela bere familiarekin Arrasatera etorri zen. Egun Aretxabaletan bizi da eta lana ere bertan egiten du Aitzorrotz etxetresna elektrikoen dendan. Lanetik aparteko orduetan familiaz egotea atsegin du.

genuen denda. Gero hemen jarraitzeko aukera eskaini ziguten eta Aretxabaleta Eskoriatza baino gehiago gustatzen zitzaigunez, hona etorri ginen.

- **Zein da zure lana?**  
Kontabilitatea eramatea, baina denetik egiten dut.
- **Erraza da denda bateko kontabilitatea eramatea?**  
Dendakoa bai.
- **Hau al da zure ametsetako lanbidea?**  
Dendari lana asko gustatzen zait, baina nahiago dut erropa-denda edo drogeria batean lan egitea.
- **Zein da etxetresna elektrikoetan gustoko marka?**  
“Philips”, arazo gutxien ematen duen etxea da.
- **Zein da azkenengo berrikuntza produktu hauetan?**  
Koloretako garbigailuak, hozgailuak...
- **Kalkuluak eskuz ala kalkuladoraz?**  
Dena kalkulagailuz.
- **Zenbat ordu egiten duzu lo?**  
Dexente, 8, 9 ordu.
- **Zein da jan ezin duzun janaria?**  
Baba zuriak.
- **Seme-alabarik?**

Zazpi urteko mutikoa eta bi urteko neskatila.

- **Bialduko zenituzke zure seme-alabak kanpora hizkuntzak ikastera?**  
Nagusiagoak izanez gero bai.
- **Denbora librean, zer?**  
Bi umeak zaindu eta etxeko lanak egiten pasatzen dut denbora.
- **Telebista ala irratia?**  
Telebista.
- **Zer ikusten duzu telebistan?**  
Denetik, baina gutxi ikusten dut.
- **Bazkaria egitea ala harrikoa?**  
Bazkaria prestatzea.
- **Eta ondoen gertatzen duzun platerra?**  
Okela egosia.
- **Postre bat?**  
Edozein pastel.
- **Oporretarako planik?**  
Tafallara joango naiz.
- **Noiz hartuko dituzu oporrak?**  
Abuztuan, hile osoa.
- **Jatuna zara?**  
Bai.
- **Mendi bat?**  
Udalaitz, lehen udalaitzen azpian bizi nintzen eta.
- **Izen bat?**  
Gaizka, senarraren izena da.

- **Nola etorri zinen Getaritik hona?**  
Lanagatik. Aita arrantzalea zen Getarian baina lana hemen bilatu eta familia guztia etorri ginen nik 13 urte nituela.
- **Eta nolatan zaude Aitzorrotz dendan?**  
Hemen egon aurretik Eskoriatzan izan

KOMIKIA



Mikel Arroiabe

# TABERNA eta JATETXEEN GIDA


## Zaraia taberna

**MANTEKA  
ANAIK**

*Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

## Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 79 85 57

## Express akeitegia

**Express  
akeitegia**  
*zure gustoko giroa*

Santa Kurtz, 16  
☎ 943 79 23 43

## Gurea taberna

**Jatetxea eta  
taberna**

**GUREA**

*Eguneko menuak*

Durana kalea • 943 79 20 64

## IZOTZ taberna

*Zure gustoko giroa*

**IZOTZ  
TABERNA**

Mitarte, 16 • 943 79 73 65

## Arlutz taberna



*Gustoko musika*


Mitarte, 16 • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 79 32 34

## Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • ☎ 943 79 92 01


## Goyaran erretegia



**GOYARAN ERRETEGIA**  
*• Panika espezialitatea*

Solohaundi-8 ARETXABALETA  
☎ 943 79 68 57

## Mendiola erretegia



*Bazkariak  
eta afariak*

*Astelehenetan  
itxita*

Mendiola auzoa • Eskoriatza

## Bazter alde jatetxea



**Sasoiko  
jakiak  
giro  
onenean**

Galartza auzoa  
© 943 79 24 58  
ARETXABALETA

## Matikua jatetxea



Azatta auzoa ♦ Tfnoa: 943 79 16 68

## Amets taberna

**AMETS**

**Taberna eta kafetegia**

Iparragirre, 4 • 943 79 01 29  
Aretxabaleta

## Josu harategia

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

**Josu harategia**

Mitarte, 1 • ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 77 03 08

## Taberna Berri



Durana, 26 • ARETXABALETA  
☎ 943 79 20 67

## Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABALETA

# AVANTIME



**RENAULT**

**MECA TAILLERRAK**

Tel.: 943 71 24 72 (Arrasate) • Fax: 943 79 64 11